



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



2024

Hezkuntza eta kultura

Jardunbide egokien
inspirazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza eta kultura

Jardunbide egokien inspirazioa

➤ 1. Aurkezpena

➤ 2. Bilakaera estrategikoa

- 2.1. Nazioarteko apustua
- 2.2. Arte-hezkuntzarako aukera bat.
Paradigma-aldaketa hezkuntza-arloan

➤ 3. Hezkuntza eta kultura

- 3.1 Hezkuntzaren eta kulturaren arteko lotura
Hezkuntzatik
Kulturatik
- 3.2 Eratorritako onurak
Hezkuntza-onurak
Onura kulturalak
Onura ekonomikoak
Onura sozialak
Egungo erronkei egindako ekarpena

➤ 4. Jardunbide egokiak

Hezkuntza formaletik edo ez-formaletik
Kultura-arlotik

➤ 5. Ondorioak

➤ Bibliografia

Laguntza teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Itzulpena:
LETE ITZULPENAK-
TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

1. Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak, lehen aldiz, txosten bat egin du hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturari buruz, lankidetzan jarduteko esparru potentzial gisa. Behatokiaren ikerketa kualitatiboen garapenaren gakoetako bat da kulturarekin sinergiak sortzen dituzten zeharkakotasun-arlo berrien esplorazio-ikerketa. Ikerketa-lerro horri jarraikiz, txosten hau aurkezten da kulturaren eta hezkuntzaren arteko lotura ikertzeko helburuz.

Hezkuntzaren eta kulturaren artean dagoen lotura ibilbide luzeko eztabaidagaia da, eta aplikazio-proiektu ukigarrietan gauzatu da azken urteetan. Egun, ikus daitekeenez, hasierako jarrera teorikoek bide eman dute lotura horretatik eratorritako aukerak arakatzen dituzten proposamen espezifikoa eta proiektuak zehazteko.

Kulturaren eta hezkuntzaren arteko lotura, oinarrizko hezkuntzaren testuinguruan (arautua eta ez-arautua), justifikatuta egon ohi da, batetik, kulturak funtsezko gaitasunak garatzen laguntzeko duen ahalmenagatik (hezkuntzaren ikuspegitik), eta, bestetik, hezkuntza-testuinguruak kultura-praktika eta -kontsumora iristeko aukera-berdintasuna sortzeko duen ahalmenagatik (kulturaren ikuspegitik). Goi-mailako hezkuntzaren testuinguruan, lotura horrek argiki laguntzen du egungo lan-merkatuan beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzen, ikertzen eta ezagutza transferitzen, eta kultura- edo hezkuntza-sektorearen mugetatik haragoko kanpo-eragin positiboak sortzen ditu.

Hezkuntzako zein kulturako ulermen estentsiboetatik abiatuta, txosten honek bien arteko lankidetzaz-aurerak arakatzea du ardatz. Horretarako, lehenik, kultura eta hezkuntzaren arteko lotura ulertzeko

moduan izandako aurrerapenak azaltzen dira, berriki egindako nazioarteko akordioetan sakonduta, eta, bigarrenik, kultura eta hezkuntza ikuspuntu desberdinetatik uztartzen dituzten ekimenei lotutako jardunbide egokiak eta inspirazio-proiektuak aztertzen dira.

Gaur egun, nazioartean nolabaiteko adostasuna dago kultura eta hezkuntza erlazionatzen dituzten jardueren ondoriozko onurei buruz, eta, horregatik, duela hamarkada batzuetatik hona, UNESCO gisako nazioarteko erakundeak lanean ari dira orientazio-ildo hori bultzatzeko eta indartzeko. Errealitate horretatik abiatuta, lehen blokean nazioarteko eztabaida teorikoa berrikusten da, eta aztertzen da paradigma-alaketak zer aukera dakarren kultura-hezkuntzaren presentzia handitzeko hezkuntza sisteman.

Bigarren blokean, kulturaren eta hezkuntzaren arteko lotura sakonago aztertzen da, eta hezkuntzaren, kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen arloetako onurak arakutzen dira. Azkenik, hirugarren blokean, kulturari eta hezkuntzari atxikitako egungo joeretan eta jardunbide egokietan sakontzen da.

2. Bilakaera estrategikoa

2.1 Nazioarteko apustua

UNESCO gisako nazioarteko erakundeek urteak daramatzate kulturaren eta hezkuntzaren baterako onurak aztertzen eta haien arteko ekintza-estrategiak prestatzen.

2006an egin zen Arte-hezkuntzari buruzko Lehenengo Mundu Konferentzia, Lisboan¹. Konferentzia hartatik abiatuta prestatu zen **Arte-hezkuntzarako bide-orria**; bertatik atera ziren hezitzaileentzako, gurasoentzako, artistentzako, ikastetxeetako zuzendari entzako, arduradun politikoentzako eta erakundeentzako gomendioak.

Ibilbide-orri horren arabera, kalitatezko hezkuntza izateko beharrezkoa da arte-hezkuntza modu egokian txertatzea; izan ere, “arte-hezkuntzaren bidez, hezkuntza orokorrak ikuspegi eta perspektibak, sormena eta ekimena sustatzen ditu, bai eta mende berri honetan bizitzarako

ezinbestekoak diren hausnarketa kritikorako eta lanerako gaitasunak ere”.

Arte-hezkuntzari buruzko Bigarren Mundu Konferentzia Seulen egin zen, 2010ean².

Seulgo agenda: Arte-hezkuntza garatzeko helburuak konferentziak jarraipena eman zion aurreko konferentziaren muiari, eta hiru helburu zehatz ezarri zizkion, estrategietan eta ekintzetan xehatuak. Lehen helburua zen arte-hezkuntza eskuragarria sustatzea, kalitatezko hezkuntzaren funtsa den aldetik. Bigarren helburua zen arte-hezkuntza kalitatezkoa izan zedila ziurtatzea, sorkuntzan zein egikaritzean. Eta hirugarren helburua zen arte-hezkuntzaren printzipioek eta praktikek balio zezatela gaur egungo munduaren zenbait arazo konpondu ahal izateko.

Arte-hezkuntza sustatzeko beharra ardatz hartu eta justifikatu zuen nazioarteko lehen

konferentzia baten ondoren, eta helburu, estrategia eta ekintza espezifikoak erdiestea lortu zuen bigarren konferentzia baten ondoren, 2024ko otsailean, Kultura eta Arte Hezkuntzari buruzko Hirugarren Mundu Konferentzia egin zen, Abu Dhabin, helburu honekin: “Politikak, ideiak eta praktikak konfiguratzea, ikasle guztiei gaur egun eta etorkizunean behar dituzten ezagutzak eta gaitasunak hobeto emateko”³.

Berariazko hiru konferentzia horiez gain, MONDIACULT⁴ kultura-politikei eta garapen jasangarriari buruzko UNESCOren mundu Konferentzian, hezkuntza eta kulturaren artean sinergiak ezartzeak dituen onura estrategikoak aldarrikatu ziren. Nahiz eta kultura politika publiko guztietan txertatzearen alde egin zuten konferentzian, hezkuntzarekiko loturak berariazko eginkizuna du. Zehazki, defendatu zen bai kultura sartzea

¹ Arte-hezkuntzari buruzko Lehenengo Mundu Konferentzia. Informazioa eskuragai, hemen: [esteka](#)

² Arte-hezkuntzari buruzko Bigarren Mundu Konferentzia. Informazioa eskuragai, hemen: [esteka](#)

³ Arte-hezkuntzari buruzko Hirugarren Mundu Konferentzia. Informazioa eskuragai, hemen: [esteka](#)

⁴ MONDIACULT 2022. Informazioa eskuragai, hemen: [esteka](#)



hezkuntza formalean, informalean eta ez-formalean sistematikoki bai kultura- eta sorkuntza-zentroen hezkuntza-egitekoa indartzea.

UNESCOk, erreferentziazko erakunde gisa, sakon aztertu du kulturaren eta hezkuntzaren artean dagoen lotura, bai eta sinergia horrek dakartzan onurak ere. Aurrerapen berrienetako bat da estatu kide guztiek onartu dutela [Kultura eta Arte Hezkuntzarako Esparru Global berria](#), 2024ko otsailean onartua.

Esparru horretan hartutako konpromisoen artean, hauek nabarmentzen dira: irakaslearen prestakuntzan kulturari eta arte-hezkuntzari lehentasun handiagoa ematea, ikasgeletako tokiko kultura eta ondarea nabarmentzea edo lanbide-munduko trebetasun artistikoak eta kulturalak hobeto ezagutzea. Esparru berri horrek azpimarratzen du etengabeko ikaskuntzaren beharra kulturen eta artean, eta kultura eta arteak politika, estrategia, ikasketa-plan eta hezkuntza-programen erdigunean jartzea. Xedea, berez, ez da

esparru hori onartzea, baizik eta haren gomendioak politika publiko ukigarri bihurtu behar dira. Ildo horretan, Unescok eta Arabiar Emirerri Batuek egindako lehen ekintzetako bat izan da irakasleentzako nazioarteko mugikortasunerako bekak eta programak onartzea.

UNESCOz gain, nazioz gaindiko beste erakunde batzuk ere, ELGA esaterako, duela hamarkada bat baino gehiago hasi ziren bide hori arakatzen. ELGAren [Art for Art's Sake?: The Impact of Arts Education](#) txostena 2013an argitaratu zen, zeinak aztertzen baitu arteek hezkuntza-gaitasunen garapenean duten eragina, orain arte argitaratutako informazio multzoaren berrikuspen zabala abiapuntu hartuta.

Arteak eta kulturak hezkuntzan duten eginkizuna aitortzeko UNESCOn eta ELGAN irekitako eztabaidan oinarrituta, Europar Batasunaren esparruan ere lehen urratsak egin ziren hezkuntzaren eta kulturaren potentzial bateratua arakatzeko. 2017an, Europako Parlamentuak [Arte, cultura y conciencia cultural en la educación](#)

txostena egin zuen. Bertan, kulturak eta arteek hezkuntzan duten potentziala aztertu zen, eta, amaieran, gomendio batzuk egiten ziren Europa mailan aplikatzeko, honako gai hauek ardatz hartuta: dagoen ezagutza handitzea, hezkuntza- eta kultura-politikak egiten laguntzea, jardunbide egokien trukea sustatzea, irakasle profesionalen prestakuntza hobetzea, kulturarako irisgarritasuna erraztea, kultura ikasketa-planetan sartzea edo hezkuntza-esparruan zeharkako ikuspegia hartzea.

Europar Batasunean hezkuntza- eta kultura-politiken eskumena estatu kideena izan arren, ez da gutxietsi behar EBk har dezakeen koordinazio- eta sustapen-eginkizuna.

Bide horri jarraituz, 2018an, Bruselan, “Kultura eta hezkuntza guztiontzat: gizarte erresilienteagoetarako trebetasunen garapena”⁵ hitzaldia egin zuten. Hitzaldi hartan aitortu zen kulturak arazoan konponketari, pentsamendu kritikoaren garapenari eta sormenaren sustapenari lotutako gaitasunak eskuratzeko duen

5 | Guztiontzako kultura eta hezkuntza: gizarte erresilienteagoetarako trebetasunak garatzea. Hemen eskuragai: [esteka](#)

garrantzia, eta hezkuntza eta kultura EBren estrategia komuna izatea eskatu zen. Gizarte zibileko erakundeek, erakundeetako arduradunek eta alderdi interesdunetako ordezkariak hezkuntzan eta kulturen apustu estrategikoa egiteko beharraz eztabaidatu zuten.

Hirien eta tokiko garapenaren ikuspegitik eta kulturaren Agenda 21aren esparruan, aldarrikatu zuten, halaber, ezinbestekoa dela hezkuntzari kultura-dimentsioa eranstea⁶, hezkuntzaren arrakasta hobetzeko, herritar konprometituak eta kritikoak sustatzeko, kultura-eskubideak bermatzeko eta hirien garapen osoari laguntzeko.

Nahiz eta kulturak eta hezkuntzak batera duten potentzialaren alde egiten duten estrategia ugari dauden nazioarteko testuinguruan, nazio mailan oraindik ez da estrategia bateraturik ezarri.

2.2 Arte-hezkuntzarako aukera bat. Paradigma-aldaketa hezkuntza-arloan

Hezkuntza-arloaren eta kultura-arloaren arteko lotura-elementu argienetako bat arte-hezkuntza da, eta testuinguru horretan egiten dute bat bi sektoreek.

Nazioarteko erakundeek urteetan jorratu dute kultura- eta arte-hezkuntzak garapen pertsonalerako eta taldekorako duen garrantzia. Alde horretatik, hezkuntza-paradigmaren aldaketa aspalditik ari da mamitzen, eta aukera bat da eskola testuinguruan arte-hezkuntza sakondu eta zabaltzeko.

Oro har, hezkuntza-paradigma aldatzeak eskatzen du, besteak beste, zeharkako ikaskuntzak sartzearen alde apustu egitea eta ikaskuntza konpetentzialaren eredu baterantz jotzea. Paraleloan gertatu dira aldaketa horiek, egungo beharrezanez erantzun beharrak eta kalitatezko hezkuntza unibertsalaren alde apustu egin beharrak bultzatuta, eta hezkuntza formalaren

eremuan kultura modu zabalean sartzeko egindako gero eta apustu handiagoa.

Hezkuntza lehentasun argia da nazioarteko erakundeentzat zein estatuentzat, justizia sozialean eragin zuzena duelako. Kalitatezko hezkuntzak ekitatea hobetzen du, biztanleria osoaren aukera-berdintasunean zuzenean esku hartuz, eta hori funtsezkoa da gaur egungo gizartearen banakako zein taldeko garapenerako.

Espanian, hezkuntza-sistemaren antolaketa eta funtzionamendua gai polemikoa izan da; izan ere, hainbat hezkuntza-lege egin dira bata bestearen atzetik, 2020ko abenduan onartutako egungo **LOMLOE** iritsi arte.

Hezkuntza-paradigmaren bilakaera nazioz gairik erakundeek bultzatu dute gure eskualdean, hala nola Europar Batasunak eta nazioarteko erakundeek, hala nola UNESCOk. Hala, edukietan oinarritutako hezkuntzatik gaitasunak oinarri dituen hezkuntzarantz egin dugu aurrera, ikasleen trebetasunen, ezagutzen, jarreraren eta balioen garapenean zentratzen den hezkuntza.

⁶ Lucina Jimenez (2014). Educación, cultura y ciudadanía. Hemen eskuragai: [esteka](#)

Hezkuntza-eredu konpetentzial bat hartzea, nagusiki, jakitetik egiten jakitera igarotzean oinarritzen da; izan ere, gaur egun bizi dugun informazioaren aroan, funtsezkoa ez da edukia, gaur egun guztion eskura baitago hori, baizik eta eduki eta ezagutza hori hurbileko errealitatera eramateko gaitasuna izatea. Hori dela eta, gogoeta garatzearekin, pentsamendu kritikoarekin, metakognizioarekin, autonomiarekin eta ikasten ikasteko gaitasunarekin lotutako trebetasunak daude egungo ereduaren erdigunean, baita ikaskuntza-metodologia aktiboen erabilera ere.

Paradigma-aldaketa hori gizarteari alderdi guztietan eragiten dion aldaketa orokor zabalago batek ezarri du. Digitalizazioak, teknologia berrien agerpenak eta ugaritzeak, globalizazioak, jasangarritasunaren garrantziak eta abarrek ekonomia, lan-merkatua eta gizarte-funtzionamendua aldatu dituzte, eta

nahitaezko egin dute hezkuntza-sisteman aldaketak egitea.

Hezkuntzari estrategia globalen esparruan (2030 Agenda, adibidez) ematen ari zaion zentralitateak ere eragin du hezkuntzaren paradigma-aldaketa. Hain zuzen ere, garapen *jasangarrirako hezkuntza* delakoaren helburu nagusia da behar den eraldaketa pertsonala eta soziala erdiestea, jasangarritasunaren arloko norabide aldaketa lortzeko.

Gaur egungo hezkuntza-paradigmaren abiapuntua da hezkuntza funtsezko eskubidea dela eta herritar guztientzat bermatu behar dela. Hezkuntza-eskubide hori bermatzeak berarekin dakar biztanleriaren eskolatze osoa bermatzea, eskola-zaingarritasunaren aurka borrokatzea eta kalitatezko hezkuntza eskaintzea, bakoitzari garapen pertsonal osoa ahalbidetzeko eta gizarte-testuinguruan elkarrekin bizitzeko.

Hezkuntza-eskubide hori bermatzeak errazten du, halaber, aurrerago ikusiko den bezala, beste oinarritzko eskubide batzuk eskuratzen, hala nola kultura-eskubideak.

Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legean modu espezifikoagoan garatu eta beharrianen diagnostiko hurbilagoa egin⁷, gaur egun indarrean dagoen hezkuntza-legeak, hots, LOMLOEk zehazten ditu egungo hezkuntza-sistema arautzen duten printzipioak.⁸ Lege hori Europar Batasuneko Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruz emandako gomendioan oinarrituta dago⁹, eta funtsezko hiru alderdi ditu hezkuntza-paradigma berriaren oinarriak ulertzeko.

⁷ 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena. Hemen eskuragai: https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2024-901

⁸ 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. Hemen eskuragai: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2020-17264>

⁹ Europar Batasuneko Kontseiluaren Gomendioa, 2018ko maiatzaren 22koa, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunei buruzkoa. Hemen eskuragai: [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604\(01\)&from=SV](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32018H0604(01)&from=SV)

Lehenik, ikaskuntza konpetentzialaren ezarpenak, Espainian 2006tik presente badago ere, aplikazio konplexua eta desberdina izan du hezkuntza-sisteman. Bigarrenik, ikastetxeei curriculum-autonomiaren aitortzarik handiena, ikaskuntzen pertsonalizazioa errazteko, eta, hirugarrenik, zeharkako ikaskuntzen garrantzia, zeinek presente egon behar baitute curriculumeko arlo eta irakasgai guztietan, hauekin uztartuta: oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetua, genero-ikuspegia, desberdinkerien balorazio kritikoa, desberdintasunen errespetua, bakearen kultura, garapen jasangarria eta abar.

Nahiz eta konplexua den paradigma teorikoa hezkuntza-eredu zehatz eta aplikagarri batera eramatea, erakunde instituzionalak zein ikastetxeak lanean ari dira hezkuntza inklusiboa modu eraginkorrean lortuko lukeen hezkuntza-sistema bat ezartzeko, bidezkoa eta

kalitatezkoa, egungo gizartearen beharrizan ekonomikoekin, lanekoekin eta garapen pertsonalarekin korrelazioan egongo dena eta gaur egun indarrean dagoen hezkuntza-zaugarritasunari amaiera emango diona.

1. irudia. Hezkuntza-eredu tradizionalaren eta konpetentzialaren arteko desberdintasun nagusiak

Hezkuntza tradizionala		Hezkuntza konpetentziala
Edukien zentralitatea	Fokua	“Egiten jakin” delakoren zentralitatea
Klase konbentzionala, non ikasleen interesetara gutxi egokitzen diren ikaskuntzak egiten diren	Ikaskuntza-ingurunea	Ikasleen interesetara egokitzea ahalbidetzen duten ikaskuntza-esperientzien aniztasuna
Irakasleek markatutako ikaskuntza-erritmoa	Ikaskuntza-erritmoa	Ikaskuntza-erritmoa ikasleen beharrianetara pertsonalizatuta egokitzea
Bere hezkuntza-programa irakasten eta garatzen du	Irakaslearen eginkizuna	Ikaskuntza erreflexiborako giroa errazten du, non ikaslea subjektu aktiboa baita eta irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzen baitu.
Ikasleak kalifikatzeko une jakinetako ebaluazio sumatiboa	Ebaluazio-eredua	Ebaluazio jarraitua eta ulergarria egiteko sistema, ikasleen ikaskuntza gidatzera bideratua
Eskola hezkuntza-erakunde gisa	Hezkuntzaren kultura	Eskola gizartearen txertatutako hezkuntza-ekosistema zabal baten parte da
Aldaketa soziala, ekonomikoa, politikoa eta kulturala		

Paradigma-aldaketa hori zergatik da aukera bat kultura-hezkuntzarako?

Kultura, bere ulermen zabalenean, hezkuntza-ingurunea osatzera igarotzen denean, indartu egiten dira gaitasunen zentralitatea, ikasteko inguruneen aniztasuna, ikasleen protagonismoa, eskola hezkuntza-komunitate osoarekin interakzioan ulertzea eta gisa horretako elementuak.

Kultura hezkuntza-helburu orokorrak zein espezifikoak lortzeko tresna bat da. Lehenik, eta oro har, hezkuntza-arloa kulturarekin zuzenean lotzeak ahalbidetzen du ikasleei hezkuntza integrala ematea, arte-hezkuntza, balioetan oinarritutako hezkuntza, kultura-aniztasunarekiko errespetua eta abar ere kontuan hartuta.

Bigarrenik, hezkuntza kulturarekin uztartzeak laguntzen du hezkuntzaren

etapa guztietan dauden funtsezko gaitasunak erdiesten, arazoak sormenez konpontzeari, arrazoitzeko ahalmenari, pentsamendu kritikoari eta abarri oso lotuta dauden gaitasunak.

Eta hirugarrenik, kultura-arloa hezkuntza-arloarekin uztartzeak zabaltu egiten du mundua ulertzeko eta harekin interakzioan aritzeko eskura ditugun tresnen horizontea, eredu eta ikuspegi alternatiboak eskaintzen baititu, hizkuntza berrien ezagutza ahalbidetzen, garapen kognitiboa sustatzen, ongizate emozionala hobetzen, aniztasunarekiko errespetuan lan egiten, gizarte kohesionatuagoak eta toleranteagoak sortzen eta abar.

Finean, kultura berrikuntza pedagogikoaren iturri argia da, eta elementu estrategikoa, banakako eta taldeko hezkuntza-helburuei erantzutea ahalbidetzen duten aldaketa pertsonal eta sozialak lortzen laguntzeko.

3. Hezkuntza eta kultura

3.1 Hezkuntzaren eta kulturaren arteko lotura

Hezkuntza eta kultura funtsezko bi arlo estrategiko dira egungo gizartearen garapenerako. Arlo bereziak izan arren, gero eta ageriagoa da haien arteko lotura. Hori dela eta, kapitulu honek hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturak arakutzen ditu. Lotura horien adibide dira hurrengo kapituluan jasotako eta hemen aurreratutako jardunbide egokiak.

Praktikan, kultura eta hezkuntza bi sektoreen arteko intersekzioekin erlazionatzen dira.

Hezkuntzatik

Hezkuntza-arloa kulturarekin erlazionatzen da, bai hezkuntza formalean, bai ez-formalean zein informalean. Bi sektoreen arteko lotura sortzen da bai kultura-praktikarako inguruneak ezarrita eskolatik

kanpo, bai praktika eta eduki espezifiko horiek sartuta eskolan.

Hezkuntza-ingurune formaletan eta ez-formaletan ez ezik, kultura eta hezkuntza hezkuntza-maila guztietan daude erlazionatuta, hasi hezkuntzaren hasierako etapetatik eta derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo goi-mailako hezkuntzara arte.

Ondoren ikusiko dugunez, onurak dakartza kultura-edukiak eta -praktikak hezkuntza-inguruneetako maila guztietan uztartzeak, bai hezkuntzaren eta kulturaren ikuspegitik, bai gizarte- eta ekonomia-alderdiak barne hartzen dituen ikuspegi zabalago batetik.

Hauek dira gaur egun kultura eta hezkuntza erlazionatzen dituzten ekintzetako batzuk: kultura-hezkuntzaren eskaintza zabaltzea hezkuntza formaleko inguruneetan, kultura hezkuntza-erakundeak espezifikoetara bideratutako tresna pedagogiko gisa ezartzea,

arte-hezkuntza ez-formalaren kalitatea eta sarbidea hobetzea, arte-hezkuntza arautzea, berrikuntzak egitea sormen-lanari lotutako metodologietan, irakasleei kultura-prestakuntza ematea eta abar.

Esate baterako, lotura horien alde egiten duten programa ugari dago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Kultura eskola* bultzatzen du, ikastetxeetan garatu beharreko kultur proposamenen katalogoa. Bartzelonako Kultura Institutuak eta Hezkuntza Partzuergoak *En residencia* programa sustatzen dute, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan sorkuntza garaikidea sartzeko programa bateratu eta espezifiko arrakastatsua. Eusko Jaurlaritzak *Magnet-erakarri* programa bultzatzen du, Barrutia Ikastolaren eta Artium Museoaren arteko aliantza puntuala, non bi erakundeek lan egiten baitute eskola curriculum bat ezartzeko

artearen bidez, hezkuntza proiektu bat eraikitzeko xedez. GizARTE sareak *Hezkuntza eta artea ikasgeletan* sustatzen du, ikasgelen barruan sortze-prozesua lantzeko helburuarekin, eta nabarmen garatzen dira hezkuntza-gaitasunak. *Fem Tàndem* programak arteei lotutako proiektuak garatzen ditu zenbait ikastetxeren hezkuntza-curriculumaren barruan. Bi sektoreen arteko loturak eta intersekzioak ilustratzen dituzten eta inspiratu ditzaketen jardunbide egokien bi adibide dira programa hauek: *Hezkuntza 360 sarea*, zeinak ingurune formalak eta ez-formalak konektatzeko helburuz lan egiten baitu, lurralde osoan hezkuntza-agenteen sareak hedatuz; edo *En el corazón de mi infancia* programa, zeinak artea erabiltzen baitu hezkuntza-tresna gisa eta belaunaldien arteko loturarako tresna gisa.

Kulturatik

Kultura-arloa zuzenean erlazionatzen da hezkuntza-arloarekin, kultura-proiektuek hartzen duten hezkuntza-dimentsiotik abiatuta. Hezkuntza-begirada hori departamentuetatik eta bitartekaritza-proiektuetatik garatzen da askotan.

Hauak dira lotura horren ondorioz garatzen diren ekintzen adibide batzuk: kultura-erakundeetan hezkuntza-departamentuak eta bitartekaritza-proiektuak sustatzea, sektoreko profesionalen prestakuntza pedagogikoa ematea, kulturako profesionalak hezkuntza-inguruneekin uztartzea, ikastetxeei zuzendutako proposamenak lantzea, kultura- eta arte-hezkuntza ez-formaleko inguruneetan eskuratutako gaitasunak formalizatzen eta egiaztatzen laguntzea, publikoak prestatzea eta abar.

Halaber, hurrengo kapituluan sakon garatutako jardunbide egokiak aurreratzuz, ikus daiteke kulturaren eta hezkuntzaren arteko loturaren adibide ugari daudela

kultura-etxeetako hezkuntza-bitartekaritzako proiektuekin uztartuak. Museo handiak dira kultura-erakunde aitzindariak arlo horretan, eta haien arlo pedagogikoak hamarkadak daramatzate ildo horretan lanean. Era berean, Tabakaleraren bitartekaritza-programak nabarmendu behar dira, zeinek, hainbat ildo eta helbururekin, bere erakundearen baitan lantzen baitute hezkuntza.


Urteak dira bitartekaritza ezinbestekoa bihurtu dela kultura-erakundeetan, eta modu interesgarrietan esperimentatzen da publikoen akonpainamenduarekin, hezkuntzarekin eta konexioarekin. Bitartekaritza-proiektuez gain, kultura hezkuntzarekin erlazionatzen duten proiektuak ere badaude, eta beste ikuspegi batzuk lantzen dituzte. Ildo horretan, Kataluniako Generalitatea programa bat bultzatzen ari da arteen eta kulturaren presentzia hobetzeko hezkuntzan, kulturako profesionalen arteko konexioa errazteko xedez eta kulturako profesionalak hezkuntza-arloan parte har dezaten laguntzeko xedez.

3.2 Eratorritako onurak

Ugariak dira kulturaren eta hezkuntzaren arteko intersekzioetik eratorritako onurak. Onura horiek hainbat mailatan azter daitezke. Badaude arlo berezituari eragiten dieten banakako eta taldeko onurak, nahiz eta elkarrekin erlazionatuta egon. Apartatu honetan, modu espezifikoan laburbiltzen dira kulturaren eta hezkuntzaren arteko loturak hezkuntza, kultura, ekonomia eta gizarte mailan dituen onurak.

Hezkuntza-onurak

Hezkuntza-helburu orokorrak eta zehatzak lortzeko tresna da kultura. Lehenik, eta oro har, hezkuntza-arloa kulturarekin lotura zuzena izateak ahalbidetzen du ikasleei hezkuntza integrala ematea, arte-hezkuntza, balioetan oinarritutako hezkuntza, kultura-aniztasunarekiko errespetua eta abar ere kontuan hartuta. Bigarrenik, hezkuntza kulturarekin uztartzeak laguntzen du hezkuntzaren etapa guztietan dauden funtsezko gaitasunak erdiesten, arazoak sormenez konpontzeari, arrazoitzeke ahalmenari,



pentsamendu kritikoari eta abarri oso lotuta dauden gaitasunak. Alde horretatik, gaur egungo hezkuntza-eredu konpetentzialean, zeinak arloen, ikasgaien eta ezagutzen arteko zeharkakotasunaren aldeko apustua egiten baitu, kulturaren egitekoa oso garrantzitsua izango da hezkuntza-gaitasun guztiak garatzeko prozesuan.

Errendimendu akademikoari lotutako onurez harago, kultura-arloa hezkuntza-arloarekin uztartzeak zabaltzen egiten du mundua ulertzeko eta harekin elkar eragiteko eskura ditugun tresnen horizontea, eta eredu eta ikuspegi

alternatiboak eskaintzen, hezkuntza berriak ezagutzea ahalbidetzen, garapen kognitiboa sustatzen, gizarte-harremanak hobetzen eta abar.

Hezkuntza arautuaren arloan, berrikuntza pedagogikoaren iturri argia da kultura, eta elementu estrategikoa, berariazko hezkuntza-helburuei erantzutea ahalbidetzen duten aldaketa pertsonalak eta sozialak lortzeko. Gaitasunak erdiesten eta errendimendu akademikoa hobetzen laguntzeaz gain, ikasleen ongizatea, autoestimua, taldearekiko tolerantzia eta kohesioa ere hobetzen ditu (Bamford, 2009).

Nahiz eta hezkuntza eta kultura uztartzearen ondoriozko hezkuntza-onurak hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean gertatzen diren, hezkuntza formal eta arautuaren esparruan sarbide-baldintza eta -berme berberak dituzte ikasle guztiek. Kultura- eta arte-hezkuntza testinguru pribatura alboratzeak, izan eskolaz kanpoko jardueren arloa hezkuntza ez-formalean, izan sozializazio-inguruneak hezkuntza informalean, hezkuntza-aukerak galtzea ekar dezake.

Goi-mailako hezkuntzaren esparruan kultura eta sormena uztartzeak lanbide-gaikuntzari lotutako onurak ere badakartza. Nahiz eta kultura eta sormena prestakuntza-arlo oso zehatzei lotuta egon diren tradizioz, urteak dira diziplina anitzeko profesional-talde zeharkakoak, malguak, sortzaileak, berritzaileak eta digitalizatuak eskatzen direla, egoera aldakorretara egokitzeo gai direnak. Horretarako, gaitasun tekniko espezifikoak dituzten profesionalak behar dira, baina baita sormenari, irudimenari eta pentsamendu kritikoarekin lotutako trebetasunak dituztenak ere. Horrek kultura eta goi-mailako hezkuntza uztartzea ekarri

du, sormen- eta kultura-industriei berariaz lotutako arloetatik harago.

Onura kulturalak

Hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturak zuzeneko onurak dakartzkio kultura-arloari ere.

Lehenik, derrigorrezko hezkuntza eta hezkuntza-erakundeak gune partekatuak dira, eta kulturara aukera-berdintasunean sartzeko aukerak sor daitezke horietan. Hezkuntza funtsezko arloa da kultura-eskubideak bermatzeko, eta, hala, sartzeko oztopo fisikoak zein psikologikoak haustea ahalbidetzen du. Ildo horretan, hezkuntza-arlotik kulturarako sarbidea bermatzeak berarekin dakar, kulturarekin eta kultura-esperientziekin bat egiteko espazioak eskaintzeaz gain, kultura-eskubideez modu eraginkorrean gozatzea bermatuko duen hezkuntza ematea.

Nahiz eta hezkuntza derrigorrezkoa izateagatik hezkuntza formala espazio pribilegiatua den gure testinguruan, hezkuntza ez-formaleko eta informaleko

inguruneak ere kultura-alfabetismoa sustatzen duten espazioak dira.

Bigarrenik, eta aurreko puntuarekin lotuta, kultura-hezkuntzak, kulturarako sarbidea indartzeko bidea den aldetik, publiko berrien prestakuntzan ere eragiten du. Ildo horretan, hezkuntza eta kultura uztartzeak ahalbidetzen du, halaber, kultura- eta sormen-arloko prestakuntza-eskaintza handitzeko eta zabaltzeko, kultura-hezkuntzara sartzeko aukerak berdintzeko eta publiko potentzial berriei kulturarako sarbidea errazteko, horiek baitira funtsezkoak sektorearen garapenerako.

Hirugarrenik, kultura hezkuntza-arloan sartzek errazten du kultura-sektorearentzat beharrezkoak diren oinarrizko gaitasunak eta gaikuntzak garatzen. Hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturak, hezkuntza-erakundeen ikuspegitik, laguntzen du txikitatik hobetzen kultura- eta sormen-arloan eta haiei lotutako trebakuntza behar duten beste arlo batzuetan profesionalki garatzeko beharrezkoak diren gaitasunak.

Azkenik, hezkuntza eta kultura uztartzeak laguntzen du, halaber, kultura-

aniztasunarekiko eta kultura-ondare materiala eta ez-materiala errespetatu, babestu eta baloratzeko jarrerak hobetzen.

Onura ekonomikoak

Hezkuntza-arlorako zein kultura-sektorerako onura espezifikoek gain, hezkuntza-kultura binomioak onura ekonomiko argiak ere baditu.

Lehenik, eta aurretik esan bezala, hezkuntza eta kultura uztartzeak honako hauekin lotutako gaitasunen garapena sustatzen du txikitatik: sormena, pentsamendu kritikoa, arazoen ebazpena, arrazoiketa eta abar, hots, *soft skills* delakoak edo enplegarritasunerako eta egungo garapen ekonomikorako oso garrantzitsuak diren trebetasun bigunak.

Sormena sustatzea da hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturan agerikoena izan daitekeen trebetasunetako bat. Gaur egungoak bezalako ekonomia dibertsifikatu, digitalizatu eta globalizatueta, pentsamendu

sortzailea funtsezko lehia da sektore ekonomiko guztientzat, ez bakarrik industria kultural eta sortzaileei lotutakoetan.

Laburbilduz, hezkuntza eta kultura oro har uztartzeak gaitasun berrien inguruko prestakuntza sustatzen du, bai mundua eta haren aldaketak ulertzeko, bai ekonomian aktiboki parte hartzeko, bai gaur egun garatzen ari diren eragile ekonomiko diren KSlei lotutako esparruetan, bai tradizioz sormen-jardueretatik urrunago dauden arloetan.

Kultura-hezkuntzak enplegarritasuna eta garapen ekonomikoa sustatzeko duen potentziala nabarmentzen da, baina kultura-hezkuntza lotura onuragarria da, halaber, kontsumoaren ikuspegitik ekonomia dinamizatzeko. Aurretik aipatu den bezala, hezkuntza eta kultura uztartzeak kultura-esperientziak eta kultura-alfabetatzea sustatzen ditu, eta horrek kultura-kontsumoa dinamizatzen laguntzen du zuzenean eta zeharka.

Hezkuntzaren eta kulturaren arteko lotura, bai hezkuntzaren ikuspegitik, bai kulturaren ikuspegitik, ekonomia mailan arakatzeko eta I+G egiteko espazioa da gaur egun. Arazo tradizionalei begirada berriak ematea, gaitasun berrietan trebatzea, irtenbide berritzaileak ematea, esperimentatzea eta ezagutzak espazio partekatuetatik transferitzea eta abar faktore interesgarriak dira gaur egungo garapen ekonomikorako.

Onura sozialak

Hezkuntza eta kultura uztartzearen onurak gizarte-arloan ere nabarmenak dira. Hezkuntzak eta kulturak ekintza-arlo bereizi gisa duten gizarte-eraldaketarako gaitasuna erabat egiaztatuta dago, eta elkarrekin erlazionatzen direnean indartu daiteke.

Hezkuntzatik eta kulturatik abiatuta, gizarte justu, baketsu, inklusibo eta jasangarrietan bizikidetzatza erdiesteko helburuarekin lan egiten da. Hezkuntzak oinarriak ezartzen ditu kohesiorako, gizarte-mugikortasunerako, desberdinkeria murrizteko eta aniztasuna

onartzeko. Egiaztatuta dago kulturak onurak dituela kohesioan laguntzeko, eta enpatiarekin, konfiantzarekin eta autoestimularekin lotutako gaitasun kognitiboak, emozionalak eta sozialak garatzen laguntzeko eta errespetuan, tolerantzian eta bakean oinarritutako balioen transmisioa errazteko.

Kulturaren eta hezkuntzaren arteko loturak herritartasun aktiboa bultzatzen du, kulturen arteko elkarriketarako prest dagoena eta gaur egungo aldaketei eta erronkei aurre egiteko funtsezko balio demokratikoak dituen.

Egungo erronkei egindako ekarpena

Arlo eta sektore jakin batzuetarako onura espezifikoek gain, kulturaren eta hezkuntzaren arteko lotura lagungarri izan daiteke gizarte gisa ditugun erronka globaletako batzuetan.

Digitalizazioak, automatizazioak edo adimen artifizialaren presentzia gero eta handiagoak gure errealitatea eraldatzen dute maila ekonomiko, sozial eta kulturean. Hezkuntza eta kultura lagungarri izan daitezke beharrezko trebakuntzak emanez, bai lan-merkatuaren eta transformazio ekonomikoaren behar berrietara egokitzeko, bai gizartean eta kulturen gertatu diren eta gerora etorri diren aldaketa handiak ulertzeko.

Jasangarritasunerako hezkuntza eta jarrera arduratsu eta iraunkorrekin lotutako balioak eskuratzea indartu egiten da kultura-hezkuntzari esker. Kultura-hezkuntzatik eratorritako ikaskuntzek eta esperientziek, ingurumen-iraunkortasunaren aldeko emaitza eta jarrera hobeak erdiesten laguntzeaz gain, iraunkortasunaren kontzeptu-zabaltasun osoan ere laguntzen dute.

Desberdinkeriak murriztea da gaur egungo beste erronka handietako bat. Hezkuntza eta kultura dira desberdinkeria iraunkorrak murrizten laguntzeko arlo handietako bi, eta baita, halaber, desberdinkeriak sortzen dituzten bi arlo ere. Hezkuntza-arloak izan behar du gizarte-mugikortasunerako eta aukera-berdintasuna sortzeko ingurune pribilegiatuetako bat; hala ere, eskola-segregazioa bezalako elementuek zaildu egiten dute helburu hori lortzea. Era berean, kulturarako sarbideak, aukerak berdintzeko elementu gisa ere balio beharko lukeenak, kolektibo jakin batzuk baztertzen ditu askotan. Ingurune kontrolatuetan, hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturak estutzea eta sarbide-berdintasuna bermatzea lagungarri izan daiteke desberdinkeriak eragiten dituzten elementuak hobetzeko.

4. Jardunbide egokiak

Kultura eta hezkuntza erlazionatzen dituzten nazioarteko posizionamenduak eta estrategiak azaldu, egungo aukera-testuinguruak aztertu eta hezkuntza eta kultura uztartzeak dakartzan onura teoriko batzuk azaldu ondoren, azken kapitulu honek jardunbide egokien azterketan oinarritutako inspirazio-elementuak arakatzen ditu.

Hezkuntza formaletik edo ez-formaletik

Arte-hezkuntzaren arloa da hezkuntza eta kultura erlazionatzen dituzten ekimen gehien dagoen arloetako bat; izan ere, bi sektoreak modu natural eta nabarmenean uztartzen dira arlo horretan. Arte-hezkuntzaren arloan, badaude hezkuntza formalera bideratutako ekimenak, beste batzuk hezkuntza ez-formala ardatz dutenak eta beste batzuk mistoak, bi inguruneetan lan egiten dutenak.

Gaur egun, kultura- eta arte-hezkuntzak presentzia handiagoa du hezkuntza-testuinguru ez-formaletan, eta horrek ikasle guztiek sarbidea izatea mugatu dezake, eta eragin zuzena izan dezake aukeraberdintasunean eta hezkuntza-arrakastan.

Jardunbide egoki nabarmenetako batzuk kultura-hezkuntzara iristeko aukerak bermatzera eta hobetzera bideratuta daude, eta hezkuntza formalaren testuinguruan sartzera eta bere onurak ikasle guztiei zabaltzera. Bildutako beste jardunbide egoki batzuek hezkuntza-xedeetarako berrikuntza pedagogikorako tresna gisa erabiltzen dute kultura, eta beste batzuek, aldiz, helburu orokorragoak dituzte eskola-segregazioa murrizteari edo gizarte-kohesioa hobetzeari lotuta.

Bertsolaritza ikastetxean

Esteka

Arduraduna: Bertsozale Elkartea

Hasiera-urtea: 1985

Kokapena: Euskal Herria

Eragina: 53 irakaslek eta 29.500 ikaslek

Bertsolaritza ikastetxean programak balio izan du ikasleen artean bertsolaritza ezagutarazteko eta biziberritzeko, hezkuntza-onura nabarmenak bultzatzeaz gain. Programa horrek erakusten du kulturatik nola landu arlo nagusiak hezkuntzan (hizkuntza, ahozkotasuna, musika, ondarea, trebetasun pertsonalak eta sozialak), ondare komunaren ezagutza sustatzeaz batera.

Programa garatu den urteetan, egiaztatu da nola berpiztu den bertsolaritza, zeina, gainera, pedagogia- eta inklusibitate-tresna bilakatu baita gela barruan.

Proiektu horrek kultura eta hezkuntza erlazionatzen ditu, praktika kultural bat sartuta berrikuntza pedagogikorako tresna gisa, eta emaitza positiboak lortu ditu, bai kultura mailan, bai hezkuntza mailan. Nahiz eta bertsolaritza hezkuntza ez-formalarekin eta hezkuntza informalarekin lotuta egon den tradizioz, emaitza positiboak izan ditu eskola-ordutegian hezkuntza-xedeekin sartzeak.

Ekimen honen kasuan, bertsolaritza hezkuntza arautuarekin uztartzeak ahalbidetu du kultur praktika suspertzea, ahozkotasanari eta hizkuntza menderatzeari lotutako gaitasun espezifikoak hobetzearekin batera.

EMMCA. Hospitalet de Llobregateko Udal Musika Eskola - Arteen Eskola

Esteka

Arduraduna: Hospitalet de Llobregateko Udala

Hasiera-urtea: 2005

Kokapena: Hospitalet de Llobregat

Eragina: 11 ikastetxe

Hospitalet de Llobregateko Udal Musika Eskolak 2005ean ekin zion bere proiektuari, musika, antzerkia edo dantza praktika artistikorako sarbidea demokratizatu eta gizarte kohesiorako lan egiteko helburuarekin.

EMMCAren kasuan, proiektuak hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formala erlazionatzen ditu. Hezkuntza ez-formalarekin lotuta, musika-eskolak eskolaz kanpoko ordutegian funtzionatzen du, ikastetxean izena ematen duten ikasleei eskolaz kanpokoak eskainiz. Hezkuntza formalari dagokionez, *Fem Tàndem* proiektua 11 ikastetxerekin gauzatzen da, eta, horietan, arteei lotutako

proiektu bat garatzen da curriculum akademikoaren barruan eta eskola-orduetan.

Konplexutasun handiko ikastetxeetako ikasleak arte-hezkuntzan sartzeko aukera-berdintasuna bermatzeko helburuarekin sortu zen proiektu hori. Proiektua ikastetxe bakoitzean berariazkoa da, eta ikasleen beharretara egokitua, eta, martxan den urteetan, egiaztatu da emaitza positiboak izan dituela, bai hezkuntza-arrakastaren hobekuntzan, bai gizarteratzean.

Musika-eskola eredu hori jardunbide egokiaren adibide bat da, eta Europako hainbat hiritan errepikatu dute *On Stage, music and arts for social change* sarearekin¹⁰.

Kasu zehatz honetan, kohesioarekin eta gizarteratzearekin lotutako helburuak lortzeko erlazionatzen dira kultura eta hezkuntza, eta hezkuntza-gaitasunak berariaz lantzen dira, eta ikastetxe horietako ikasle guztiei eskaintzen zaie arte-hezkuntza.

En Residencia

Esteka

Arduraduna: Bartzelonako Kultura Institutua eta Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoa

Hasiera-urtea: 2009

Kokapena: Bartzelona

Eragina: 15 edizio eta 24 proiektu martxan

En Residencia programa 2009an sortu zen, Bartzelonako Kultura Institutuaren eta Bartzelonako Hezkuntza Partzuergoaren arteko lankidetzatik. Proiektu hau bigarren hezkuntzako ikastetxeetan sorkuntza garaikidea sartzeko helburuarekin garatzen da. Helburu hori lortzeko, zentro batekin egoitzan dagoen artista batek sortzeko pentsatutako obra bat egiten du, kontzeptualizaziotik errealizaziora, ikasle talde batekin ikasturte osoan zehar eta eskola-orduetan.

Egiaztatu da programa hau arrakastatsua dela, bai sortzaileentzat, zeinek sustatzen baitituzte berrikuntza eta sormena, bai ikasle eta irakasleentzat, zeinek jasotzen baitituzte ikaskuntza-esperientzia oso esanguratsuak.

Hezkuntza eta Arteak ikasgeletan

Esteka

Arduraduna: GizARTE

Kokapena: Euskal Autonomia Erkidegoa

Eragina: 5 erakunderen eta 5 ikastetxeren inplikazioa

GizARTE ekimenaren esparruan, UNESCO Etxearen ekimena hezkuntza, kultura eta garapen estrategietan eragiteko, Hezkuntza eta Arteak Ikasgeletan programa jarri da abian, aurrekoaren antzeko programa, non ikasleek sorkuntza artistikoaren prozesua ezagutzeko aukera izango duten ikastetxearekin lotzen diren sortzaileen eskutik.

Hezkuntza eta Arteak Ikasgeletan programa sortzaileak ikastetxeetan –lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan zein unibertsitatean– murgiltzeko programa bat da, eta eskola-orduetan egiten da. Garatzen den sortze-prozesuan, arte-diziplinen berezko teknikak lantzen dira, baina baita prozesuari lotutako gaitasunak ere (sormena, irudimena, ebazpena, lankidetzaren, pentsamendu kritikoa, etab.).

Gaur egun, 5 erakunde eta 5 ikastetxe daude proiektuan inplikaturik. Erakunde gisa, Horman Poster, Utopian Getxo, Tepsis Teatro, Begira Elkartea eta Teatro Paraiso ari dira. Ikastetxe gisa, Cantarrana Eskola (Muskiz, Bizkaia), Bertendona BHI (Bilbao), Aranbizkarra Ikastola (Vitoria-Gasteiz), Deusto Ikastola (Bilbao) eta Julio Caro Baroja Institutua (Getxo) ari dira.

Magnet-erakarri

Esteka

Arduraduna: Eusko Jaurlaritzak, Barrutia Ikastola eta Museo Artium

Hasiera-urtea: 2019-2020

Eusko Jaurlaritzak bultzatutako hezkuntza-programa pilotua da hau, eta ikastetxe baten (Barrutia Ikastola) eta entitate ospetsu baten (Artium Museoa) arteko aliantza ezartzen du. Kasu honetan, aliantzaren helburua da hezkuntza proiektu bat eraikitzea, non bi erakundeek 3 urtez elkarrekin lan egingo duten artearen bidez eskola curriculum bat ezartzeko. Aliantza horren emaitza gisa, ikasleek artistekin eta proiektuko

kolaboratzaileekin uztartuta egindako tailerren emaitzak ikusgai daude Artium Museoan.

Proiektu honi dagokionez, Katalunian, Jaume Bofill Fundazioak, Hezkuntza Sailak, UABko Consorcio d'Educació de Barcelona i l'Institut de Ciències de l'Educació erakundeak Estatu Batuetako Magnet Schooletan oinarritutako proiektu bati ekin zioten, hezkuntza-segregazioa hobetzeko. Magnet-erakari programaren antzera, ikastetxe segregatuen eta erreferentziazko erakunde (kulturalak izan edo ez) arteko kolaborazioak ezartzen dira kalitatezko hezkuntza proiektu berritzaile bat gauzatzeko, inguruko familiak ikasleak ikastetxean matrikulatzera animatuko dituenak. Besteak beste, Liceu eta MACBA erakundeek parte hartzen dute proiektu honetan.

En el corazón de mi infancia

Esteka

Arduraduna: Torres Vedras Udala, Portugal

Hasiera-urtea: 2014

Kokapena: Torres Vedras, Portugal

Impacto: 472 parte-hartzaile hasi zenetik

Torres Vedrasen (Portugal) egiten den proiektu bat da, eta jardunbide egokitzat jotzen du hiri hezitzaileen nazioarteko elkarteak. 2014an abiatutako proiektu honek belaunaldien arteko topaguneak sustatzen ditu, artearen bidez.

Artea, bere adierazpide ezberdinetan (literatura, musika, arte plastikoak, etab.), belaunaldi desberdinetako pertsonen artean lotura emozionalak, kognitiboak eta afektiboak sortzeko tresna da.

Espazio horietan eta jarduera horien bidez partekatutako esperientziek tokiko historia ulertzeko eta kide izatearen sentimenduak indartzeko balio diote gazteriari. Literatura

eta idazketa, kantua eta obraren sorkuntza dira belaunaldien arteko konexio gisa balio duten bitartekoak, zeharkako ikaskuntzetan sakontzeko.

Educació 360

Esteka

Arduraduna: Fundació Jaume Bofill, Bartzelonako Diputazioa eta la Federació de Moviments de Renovació Pedagògica

Hasiera-urtea: 2018

Kokapena: Katalunia

Eragina: 300 organizazio eta erakunde baino gehiagoren parte-hartzea

Hezkuntza 360 sarea ekimena, denbora osoko hezkuntza, hezkuntza-ekitatea hobetzeko eta ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzeko helburuarekin sortua da. Helburu hori lortzeko, ingurune formaletan eta ez-formaletan ematen diren ikaskuntzak lotu nahi dira, eta lurralde osoko hezkuntza-eragileak konektatu eta komunitateari lotutako sare zabalak sustatu.

Nabarmendutako beste praktika batzuk bezala, ez da kulturari zuzenean lotutako ekimena, baina agerian uzten du komunitate bateko kultur eragileek eta erakundeek hezkuntza-inguruneari lotuta egon behar dutela.

Ekimen honen esparruan, praktika espezifikoa daude, hala nola EducArtS¹¹ proiektua, Bartzelonako Ciudad Meridiana, Torre Baró eta Vallbona auzoetako ikasleen hezkuntza-aukerak hobetzeko arte eszenikoak gizarte- eta hezkuntza-tresna gisa erabiltzen dituen proiektu pedagogikoa. Proiektu honek, praktika artistikoaren bidez, ikasleen egoera emozionalean bidelagun izan nahi du, hobetzen laguntzeko eta gatazkak kudeatzeko tresnak emateko, eta, era berean, gaitasun komunikatiboak ere lantzen dira. Guztion onerako diren ikasleen bizi-proiektuak garatzen bidelagun izatea bilatzen duen proiektua da.

Kultura-arlotik

Aurretik aipatu den bezala, kultura- eta arte-hezkuntzaren arloa da hezkuntza eta kultura erlazionatzen dituen ekimen gehien sortzen diren topaguneetako bat. Urteak dira, ordea, kultur-sektoretik berebiziko garrantzia ematen zaiola kultura-proiektuen hezkuntza alderdiari.

Ildo horretan, ikastetxeei kultura-ekimenak eskaintzen dizkieten programen adibideak dira bildutako jardunbide egokiak, eta oinarrizko konexioak ezartzen dituzte kultura-eskaintza eta hezkuntza-publikoa lotzeko; programa horiek kultura-bitartekaritzaren eta hezkuntzaren alde egiten dute erakundeetatik, edo ekipamendu eta programa pilotu orokorrak dira, hezkuntzako eta kulturako profesionalen arteko konexioak ezartzea xede dutenak, bi sektoreak lotzen dituzten proiektuetan elkarrekin lan egitearen alde.

Kultura eskola

Esteka

Arduraduna: Gipuzkoako Foru Aldundia

Hasiera-urtea: 2020

Kokapena: Gipuzkoa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren proiektua da, eta ikastetxeetan egin beharreko kultura-ekimenak eta -proposamenak biltzen ditu. Zehazki, Aldundiak katalogo bat egiten du aurkezten diren eta zenbait baldintza betetzen dituzten proposamenekin, eta katalogo hori ikastetxeei eskaintzen zaie, praktika ezberdinen artean aukera dezaten. Programa honen helburu zehatza da 12 eta 16 urte bitarteko gazteei kultura- eta arte-jarduera hurbiltzea, sentsibiltatea eta irizpide artistikoa sortzeko eta begirada kritikoa garatzen laguntzeko.

Ildo horretan, kultura-erakundeetan egindako hezkuntza-jarduerak eta bigarren hezkuntzako ikastetxeak lotzea ahalbidetzen duen proiektua da.

Tabakalerako bitartekaritza-programak

Esteka

Arduraduna: Tabakalera

Kokapena: Donostia

Urteak dira kultura-erakundeek hezkuntza-alderdia oso presente dagoela, eta gure inguruko kultura-zentro askok dituzte ikastetxeei zuzendutako bitartekaritza-proiektuak. Arte garaikideko bitartekaritzaren adibide interesgarri bat da Tabakalerako programa.

Tabakalerak zenbait bitartekaritza-programaren aldeko apustua egiten du. Praktika artistiko garaikideei, zinemari eta ikus-entzunezkoei lotutako tailerren programazioa dute, baita adin guztietako taldeentzat (haur hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH, batxilergoa eta helduak) pentsatutako sorkuntza-laborategiena ere.

Tailer puntualez gain, ikasturte batean ikastetxeekiko harremanean sakontzeko deialdiak ere badituzte, eta irakasleentzako

prestakuntza-programa bat ere bai, arteari eta pedagogiari buruz elkarrekin hausnartu eta topaketarako eta lankidetzarako espazio aberasgarri bat sortzeko helburuarekin.

Hezkuntzan arteen eta kulturaren presentzia hobetzeko aldi baterako programa

Esteka

Arduraduna: Kalaluniako Generalitateko Kultura eta Hezkuntza Departamentua

Año de inicio: 2024

Kokapena: Katalunia

Aurten bertan, Kataluniako Generalitateko Gobernuak hezkuntzan arteen eta kulturaren presentzia hobetzeko aldi baterako programa bat onartu du. Programaren helburu nagusia da kulturako eta hezkuntzako profesionalen arteko konexioa bultzatzea, arteek ikasgelan duten zeregina sustatzeko.

Programa honen helburu zehatzak dira ikasleen kulturarako sarbidea indartzea, ikastetxe ahulenen kultura-programak bultzatzea eta ikastetxeen eskura

dauden kultura-ekimenak sustatzea. Hori lortzeko, kultura teknikariek hezkuntza departamenduko lurralde-zerbitzuetan lan egiten dute, ikastetxeak eta lurraldean dauden kultur ekipamendu eta proiektuak harremanetan jartzeko.

5. Ondorioak

Hezkuntza eta kultura, beren ikuskera zabaletan, ezin dira bata bestea gabe ulertu. Nahiz eta kontzeptualki hezkuntzaren eta kulturaren arteko lotura bistakoa den, oraindik arakatze-bidean dagoen eremua da.

Hezkuntza eta kultura uztartzea beharrezkoa da bai herritar guztiei kalitatezko hezkuntza bermatzeko, bai kultura-bizitzan parte hartzeari lotutako oinarritzko kultura-eskubideak bermatzeko. Ez dago hezkuntza osorik kultura kontuan hartu gabe, ezta kultura eraginkorrik ere alde hezitailerik gabe, hezkuntza kultura-balioetan oinarritzen baita, eta kultura hezkuntza-balioetan.

Txosten honek hezkuntzaren eta kulturaren arteko loturan sakondu du, eta nazioarteko apustua arakatu, hezkuntzaren paradigma-aldaketak dakarren aukera aztertu, egon daitekeen lotura eta horren ondoriozko onurak zehaztu eta horri lotutako jardunbide egokiak aztertu ditu.

Kulturaren eta hezkuntzaren artean lotura naturala da, banakako eta taldeko helburuak erdiesten laguntzen duena. Banakako mailan, hezkuntza eta kultura funtsezkoak dira norberaren nortasuna garatzen laguntzeko, eta, talde mailan, aldiz, egungo testuinguruko elementu nagusiak dira gizarte-hobekuntza, desberdinkerien murrizketa, gizarte inklusiboak, tolerantak eta aniztasuna errespetatzen dutenak sortzea, eta ekonomia global gero eta interkonektatuago baterako prestatzea.

Hainbeste lotura komun dituzten arloak izanik, hezkuntza- eta kultura-arloen arteko konexio-espazioetan lan egiten duten proiektu, programa eta ekimenen adibide ugari daude. Ekintzaren ekimena norena den alde batera utzita, errealitateak erakusten du bi sektoreak xede desberdinak dituzten proiektuetan erlazionatzen direla, eta tresna gisa balio dutela hezkuntza-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-eremuak hobetzeko.

Hala, txostenean jasotako jardunbide egokiek erakusten dute nazioarteko estrategiak eta gomendioak gure testuinguru geografiko eta sozioekonomiko zehatzera eramaten direla nolabait.

Bibliografia

UNESCO: (2024). *Cultura y Educación*. Hemen eskuragai:

<https://www.unesco.org/es/culture-education?hub=71580>

Faure, E. (1972). *Learning to be: The world of education today and tomorrow*. Unesco. Hemen eskuragai:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000223222?posInSet=7&queryId=f8e162e2-d7ba-46dc-89bd-6df4c730a738>

Delors, J. (1996). *La Educación encierra un tesoro, informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la Educación para el Siglo XXI (compendio)*. Hemen eskuragai:

https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000109590_spa

UNESCO: (2006). *Road Map for Arts Education: The World Conference on Arts Education: Building creative capacities for the 21st century, Lisbon, 6–9 March 2006*. Hemen eskuragai:

<https://www.kultur-vermittlung.ch/zeit-fuer-vermittlung/download/materialpool/MFE060501.pdf>

UNESCO: (2010). *La Agenda de Seúl: Objetivos para el Desarrollo de la Educación Artística*. Hemen eskuragai:

https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000190692_spa

Consell Nacional de la Cultura i de les Arts – CoNCA (2024). *Educació i Cultura*. Hemen eskuragai:

<https://conca.gencat.cat/ca/ambits-dactuacio/educacio-i-cultura/index.html>

Carbó, G. (2024). *Les relacions entre educació i cultura*. La cultura en la societat contemporània. Universitat Oberta de Catalunya. Hemen eskuragai:

http://cv.uoc.edu/annotation/24d60fafb04e2ff2234948562c917956/620834/PID_00159515/PID_00159515.html

Organització de les Nacions Unides per a l'Educació, la Ciència i la Cultura UNESCO (2015). Repensar l'educació. Vers un bé comú mundial?. Kataluniako UNESCO zentroa. Hemen eskuragai:

<http://www.unescocat.org/fitxer/3686/repensareducacio.pdf>

Crosas, I. (2018). *La influència de la cultura i les arts en l'educació*. Centre d'Estudis i Recursos Cultruals de la Diputació de Barcelona. Hemen eskuragai:

https://interaccio.diba.cat/sites/interaccio.diba.cat/files/la_influencia_de_la_cultura_i_les_arts_en_leducacio.pdf

BAMFORD, A. (2009). El factor ¡Wuuu! El papel de las artes en la educación: un estudio internacional sobre el impacto de las artes en la educación (1a ed.). Bartzelona: Octaedro.

BARBIERI, N. (2015). Cultura i educació: cap a una aproximació integral. A Estat de la cultura i de les arts 03_2015: repensant les polítiques culturals, reptes i reflexions (pp. 35-39). Bartzelona: Consell Nacional de la Cultura i de les Arts. Hemen eskuragai:

<http://cercles.diba.cat/documentsdigitals/pdf/E150247.pdf>

Culture 21 Agenda (2015), United Cities and Local Governments. Hemen eskuragai:

<https://agenda21culture.net/documents/culture-21-actions>

LIPOVETSKY, W. (2017). Ciutat educadora i ciutat creativa: vies per a una bona convivència. A Monogràfic Associació Internacional de Ciutats Educadores: ciutat, convivència i educació. Bartzelona: Associació Internacional de Ciutats Educadores (pp. 14-19).

Hemen eskuragai:

<http://www.edcities.org/ca/wp-content/uploads/sites/6/2017/07/Monogràfic-Ciutat-Convivència-i-Educació.pdf>

Carbó, G. (2013). *Polítiques culturals i educatives a Catalunya: dificultats de la interrelació*. Girona: Universitat de Girona. Hemen eskuragai:

<http://dugi-doc.udg.edu/bitstream/handle/10256/8065/tgcr.pdf?sequence=1>

UNESCO, O. (2022). Reimaginar juntos nuestros futuros: Un nuevo contrato social para la educación. *Perfiles Educativos*, 44(177), 200-212.

Central American Educational and Cultural Coordination (2020). Estrategia para articular la relación funcional entre cultura y educación en el contexto social de la Región SICA. UNESDOC Digital Library. Hemen eskuragai:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000375127>

EL CONSEJO, D. L. U. E. (2021). Kontseiluaren Ebazpena, hezkuntza- eta prestakuntza-arloan Europa mailako lankidetzarako marko estrategikoari buruzkoa, Hezkuntzarako Europar Esparruari eta harago begira (2021-2030).

Europako Batzordea. (2017). *Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeen Komiteari egindako jakinarazpena. Europar identitatea indartzea hezkuntzaren eta kulturaren bidez.*

Culture Action Europe. (2018). *Culture and Education for All: Building the Skills for More Resilient Societies*. Hemen eskuragai:

<https://cultureactioneurope.org/news/press-release-culture-and-education-for-all/>

JIMÉNEZ, L. (2014). Educación, Cultura y Ciudadanía. Agenda 21 de la cultura- Comisión de Cultura de Ciudades y Gobiernos Locales Unidos & Global Taskforce of Local and Regional Governments for Post- 2015 Development Agenda Towards Habitat III. Hemen eskuragai:

https://www.agenda21culture.net/sites/default/files/files/documents/es/newa21c_lucina_jimenez_spa.pdf

Pasikowska-Schnass, M. (2017) (2017). Arts, Culture, and Cultural Awareness in Education. European Parliament, European Parliament Research Service. Hemen eskuragai:

[https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/BRIE/2017/608807/EPRS_BRI\(2017\)608807_EN.pdf](https://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/BRIE/2017/608807/EPRS_BRI(2017)608807_EN.pdf)

Winner, E., T. Goldstein y S. Vincent-Lancrin (2013). *Art for Art's Sake?: The Impact of Arts Education*, Educational Research and Innovation, OCDE. Hemen eskuragai:

https://read.oecd-ilibrary.org/education/art-for-art-s-sake_9789264180789-en#page1

Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioa (2022) *Aproximar las enseñanzas formales y no formales*. Hemen eskuragai:

<https://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:ddfeba99-5631-4477-9fd0-768dc3f39883/pe-n12-art01-pilar-alegria.pdf>

UNESCO: (2023ko urriaren 24a). *All Steps. A Framework for Culture and Arts Education*. Hemen eskuragai:

<https://www.unesco.org/en/frameworkcultureartseducation?hub=71580>



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

Hezkuntza eta kultura

Jardunbide
egokien inspirazioa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

